



<https://sites.google.com/view/literatur-solasaldia/>

Koloreen esanahia:

Beltza: Testu originala// **Gorria:**Nire ekarpenak // **Morea:** Autorearen baieztapenak

IDAZLEA- LIBURUA: [Lander Garro](#)- FAITH

BERRIAK:

[Lander Garro: "Errepresioak operatzen du beldurra dagoelako" : Oarsoaldeko Hitza](#)

Faith liburuaren abiapuntua ihesbide bat da, labirinto batera ihesa. Zure adinkide batek esana da, euskal gatazkaren kontakizunean oso ezkutuan geratu dela gazteek jasan zuten jazarpena. Ekarpena egin nahi al zenion kontakizunari?

Liburu guztian zehar, Ugarteri beldurra nabaritzen zaio: poliziak noiz atxilotuko duten, ETAn dauden anai-arrebak ea bizirik ikusiko ote dituen berriro, txikia zenean GAL gertutik ezagutu izana... Umorea ere ageri da. Ikara hori disimulatzeke al da?

Liburuan *mise en abyme* teknika erabili duzu, kontaketa barruan beste bat sartzea, matrioska baten antzera, oraina eta iragana tartekatuz. Hala ere, dena arnasaldi batean idatzita dagoela dirudi. Erabil dezagun klixe bat: idazle moduan, heldutasunera iritsi al zara? Gazteekiko jazarpena jorratzen duzu, baina 'gerraren erretagoardia'-rena ere bai. Epikotasunik gabekoa da, eta beti agertzen dira amak, beti amak.

["Nire literaturan bada etengabeko borroka bat terroristaren figura desmuntatzeko"](#)

Idazteko prozesua neurosiarekin lotutako zerbait da niretzat eta interesatzen zaidan literatura hori da gainera, idazketa pixka bat hautsia, psikologikoa...

Nik beti eduki dut joera hori, txiste bat enkajatzekoa. Zeren terrorista gezur bat da, propaganda militarra, pertsonak deshumanizatzeko ahalegina. Eta niretzat horren kontrako antidotorik interesgarriena da detailea, singularitasuna. Erakustea pertsona bakoitza dela singularra, bera den modukoa dela."Jazarpena eta kontrola hor dago, baina dena ez daukate irabazita". Ideia hori ere zabaldu nahi izan duzu?Badago liburu bat funtsezkoa niretzat: Jonathan Littellen *Les Bienveillantes* [Gallimard, 2006]. Pentsa zer egiten duen hor jatorri judua duen idazle batek: sartzen da nazi baten garunean, ez naziari buruz ondo hitz egiteko, baizik eta naziari ertz askotatik begiratzeko. Eta niretzat ariketa literario ikaragarria da, baina humanoa ere bai. Ez dakit nire liburuak horrainoko ariketa egiten duen; *Faith*-ekin ere bi edizio saldu ditut, eta uste dut irakurleekin harreman ona eduki dudala, baina literatura sistemak bazterrean utzi izan nau beti...Uste dut horrek guztiak zerikusia daukala politikarekin. Uste dut Euskal Herrian mundu guztia (idazleak) saiatzen dela disimulatzen bere posizio politikoa.

BIDEOAK: [Lander Garro eta "Faith", "bere libururik handiena"](#)

KRITIKAK:

[Patuarekin lehian Asier Urkiza / Berria, 2022-05-01:](#)

Nolabait, 2014ko *Gerra txikia*-ren jarraipena da *Faith*. Izan ere, bere *alter ego*-tzat har daitekeen Xabi Ugarte dakar berriz ere Garrok, ondo koskortuta, jadanik bizitzaren abenturan zaildu samarra.Zer egin dezake norbanakoak Historiaren gorpilaren aurka? Noraino da gizakia erabakiak hartzeko libre, halabehar ahaltsuaren aurrean?autoreak geruza auto-ironiko batez estaltzen du narrazioa; ironia eta umore kutsu horrek ematen dio, hain zuzen,



<https://sites.google.com/view/literatur-solasaldia/>

sinesgarritasuna protagonistari, irakurlearen aurrean humanizatzen du. Protagonistaren beraren eta gainerako pertsonaien karakterizazioa da nobelaren indarguneetako bat. Tartean txertatzen diren gogoeta iruzkin luzexeagoak, baina, zenbaitetan ez dira protagonistaren karakterizazioarekin egoki uztartzen.

[Itsasoan uharte \(amets galduen hondamendian\) Mikel Asurmendi / *blogak.eus*, 2022-03-07](#)

[Gerra eta patua Ibon Egaña / *Deia*, 2022-01-15](#)

AZPIMARRAK:

2000. urtean gaude. Xabi Ugarte Bartzelonara doa, Euskal Herriko giro politiko itogarritik aldendu eta han artista bizitza bat eraikitzeko asmoz.

Eleberri hunkigarri, umoretsu eta aldi berean dramatikoa sortu du Lander Garrok, nik neure burua gorrotatzen dut. Erotuta nago, hori da dena.

Dena da lehia nire baitan. Kamerarik gabe Bartzelonan pasatako instant bakoitza, galdutako momentua da.

Ni ez naiz lagunenez neska-lagunez interesatzen diren horietakoa. Albokoen musuak itaun bat ziren. Geuk ere elkar musukatu behar al genuen? Etxe txikia daukate **Leirek eta Martik**, baina oso apaina. Leire kulerotan dago nire ondoan, baina ez dio axola. Kritika laudorio baten azpian ezkutatzea gustatzen zait.

Marti joan denean, Leire etorri da eta nirekin sartu da sofán eta Anaz jardun dugu, bere lagun-mina den eta nire neska-laguna den geure artistaz. Neska ederra da, baina oso auto-suntsikorra. Besteari kasu egiteko neurri egoki bat ote dago? Nola neurtzen da? Nork ezarri zuen?—Perfekziorik ez dago inon —esan dut—, ez bada Nikon kameraren makinarian.

Okerrena da Elton John gorroto nuela Lars Von Trierrek *Breaking the waves* filmerako soinu bandan sartu zuen arte, filmean “Chapter six: **Faith**” ikusi nuen arte.

Bueltatzen da Mercadonara beste bi protagonistekin, baina, ez erabat, jarraitzen duelako bere gogoeta xelebreekin (bazkalosteko isiltasuna, lo kuluxka, suizidioa)

Neure buruari kargu hartu gabe onar dezaket horixe zela nire asmoa: galdutzat emandako gerran parte ez hartzea. Eta presoak? Aterako ditu herriak, ez neuk.

[Ez niri galdetu nola mugitzen den zaldi bat, ordea.](#)

[Miseriarekiko anestesia sentitzen duzu hirian, halabeharrez.](#)

[Inbidia azkazalaren eta hatz-mamiaren artean sartzen den orratz bat da.](#)

[Hori da kultura: nortasun amiñi bat ezer ez dagoen lekuan.](#)

“Abbas Kiarostami ezagutu nuenean jakin nuen zinema egin behar nuela.



Martiri(Leire) zer gertatu ote zaion, zer egin ote diodan. Horixe galdetu nahi nioke. Umiliatu edota kalera joan, horra dilema.

Anaiak poliziaren aurrean negar egin zuen, nik poliziaren aurrean kaka egin nuen, bospasei bider.

Benetan behar ditudan gauza bakarrak: bentolina, San Juan belarren pilula kaxa, liburu bat edo bi, ahalik eta potoloenak. Beste dena burgeskeria da.

Bizitza osoa gera nintekeen haien etxean, **Pauren** begiradan sumatzen dudanez. Baina **Marina**renak kontrakoa dio.

Bizitza panpina begiak dituen ofidioa da.

Zorte ona baduzu, ez duzu izango zeure gorputz birjina **bortxatu** nahiko duen osaba bat edo lehengusu bat edo gurasoen lagun bat, izerditan zure gainean etzanda bizitza leherraraziko dizuna.

Nire bigarren argazki erakusketa ari nintzen prestatzen poliziak atxilotu ninduenean.

The public eye filma ikusi nuenean erabaki nuen argazkilaria izango nintzela.

Weegeek AEBetako bizitzaren zikinkeria jartzen zuen agerian inork ez bezala. Odolaren mintzo etengabea. Indioak sarraskituta eraikitako estatu zapuztuaren erokeria. Dena zuri-beltzez, dena zuzentasun ikusgarri batez.

Maria nire ondoan zegoen polizia etxera etorri zenean. **Eugene Smithen liburu bat neukan eskuen artean: Ku Klux Klanen biltzar bat ematen du.**

Nagore eta Gotzon, artean nirekin bizi zirenak, biak zeuden politika kontuetan sartuak.

Disimulua da okerren disimulatzen den jarrera.

ATXILOKETA ETA GOGOETAK KAKA EGIN BITARTEAN

Sukaldeko mahaian jarri du orria eta hari so geratu gara instant batez. Audientzia Nazionalaren atxiloketa autoa da. Dardarka nago.

Iñakiren etxean dago orain ama. Nobioak dira. Beno, nobioak ziren. Gero Iñakik tronbosia izan zuen eta orain gehiago dira eria eta erizaina.

Askotan uzten da harreman bat beste harreman bat jomugan dagoenean.

Aita kartzelatik atera zenean zoriotsu izango ginela uste genuen, erbestea eta kartzela atzean utzita, aurreko bizitzari lotzeko aukera izango zuelako. Baina ez zen halakorik gertatu.

Amaierak gehiegi irauten du beti, hura saihesteko asmoz luzatu besterik ez delako egiten.

Gauzek usain bat izaten dute, eta gurasoen amaierak usain hori dauka.(gurasoen banaketarena)

Beti nahi izan nuen familia normal bat, besterik gabe. Baina familia normalak oso anormalak dira, hain gutxi direnez.

Frantziako poliziak aitari eskuak lotu zizkionean, Gotzonek kafesnea ahora eman ziola oroitu dut.

PAUREN eta Marinaren etxea Sants auzoan dago, Bartzelonako glamourretik urrun eta Modelo kartzelatik oso gertu. Jakin-min izugarria pizten didate kartzela guztiek.



Presoa tabu bat da, ordea. Eta tabuari ezin zaio begietara begiratu. Tabu izateari utziko lioke. Horregatik ez die inork so egiten.

Presoak garita bati buruz eta barruan dagon zaindariari buruz filosofatzen-segidan trena hartzen du, beste egun batean,-portua-turistak-kamera argazki bat-Berez, ez nintzen hona zinema ikastera etorri, baina zinema ikastea, azken batean, argazkilaritza ere ikastea da, ezta?

zer den argazkilaritza-Duane Michals argazkilariairen aipamena- Zinema eskolan sartu da-ingurua deskribatzen du- jakinduria azaltzeko probesten du(datuak, autoreak, pelikulak)-Urduriegia nago, eta pittin bat desenfokatuta ikusten dut dena. Gehiegi galdetzen badute nire neurosia ikusiko dute agian.

Zein da... nola esan, zure gaia? –Inbidia. Badakizu, besteak daukana desiratzea, besterik ez bada bestea delako jabea eta ez zeu.

Ez dago ongi ezjakintasunaren alardea egitea, baina erudituen papertxoak jokatzea ez al da okerragoa?

(Jauzia denboran. Atxilotera bueltatzen da)

Nik ertzainaren zapatei begiratzen nien. Lokarriak. Lokarriak lotzeko eguneroko erritualean irudikatzen nuen agentea.(ertzainaren paperean sartzen da, suposizioen bidez) Bere kezka bakarra gaizkileak barruan gorde dezakeen sekretu ezkutukoena tantaka ateratzea da. Bokaziozkoa da?

–Si eres tan intelectual, ¿por qué te metes en líos? –No soy un intelectual.

“¡dispara, que no lo va a echar de menos ni su puta madre!”, barreak berriz.

(Berrirori jauzi zinema eskolara)

Tarkovskiren film batzuk ikusi behar ditut biharko, ignorantziak irentsiko nau bestela.

Zinema gaiak probestuz Anaren deskripzio ez fisikoa-

77 izeneko tabernan egiten du lana Anak, Lavapies auzoan. Theo Angelopoulosen, Txaikovskiren (edo Tarkovski, berdin dio), Igmar Bergmanen eta Agnes Vardaren jarraitzaileak juntatzen dira han.

Ezkerreko kontserbadorea da Ana, familia onekoa den jende guztia bezala:

Aita eraman zuten aurrena, ama gero, Manu ondoren, eta azkenik Gotzon eta biok. Nagore eta Gotzon sasia daude orain,

Politika guztia da dialektika poliziala.

Okerrena da ez daudenean ere hor daudela sinetsarazten dizutela. Zelatan dituzu zelatan ez dituzunean ere,(poliziaren inguruko gogoetak)

Arratsalde bat oroitzen dut, Grosen.(gogoetatik kasu konkretu batera). “El objetivo está sentado en la mesa central de la terraza, esperamos órdenes”, esan du poliziak.

INOLAKO nortasunik ez daukan Joan Güell kalean dago Pauren eta Marinaren tatuaje estudioa.(buelta gaurkora)

Bartzelona/Paris konparaketa(tabernak, pertsonaiak, hilerria)



1997an atxilotu nindutenean, poliziarri eta epaileari egia esan nien.

Horregatik, poliziarri ez bezala, Pauri ez diot aitortuko autobus hura erre ez nuenik.

(polizia-atxiloketa-galdetegia-Pau lotzen du, Pau integratzen du historia horretan)

Nor baino nor erakargarriagoak dira euren beso tatuatuekin, zertarako jarriko diote arreta ni bezalakoa izaki gutxitu bati: haien merkatutik kanpo nago.

(protak bere burua zalantzakor, gutsietsia agertzen saiatzen da, antiheroe papera jokatzuz)

Atxilotu nindutenean Juanma Bajo Ulloa zinema zuzendariari egindako argazki erreportajea errebelatzen ari nintzen.(lehen aitortza zerbait egiten ari zenarena)

Mohikanoak gara, bitxiak eta gerlariak.(Pauren aurrean dauden hiru euskaldunak)

Haiek bezalakoa nahi nuke izan, gorputza tatuatu eta haxixa erre, erotzeko zorian biziko ez banintz bezala.

(beti inkonformismo postural bat erakusten du, ez dago gustura bere buruarekin inoiz edo bestela zalantzan dago)

Kontua da jakintzaren mugan ibiltzea, alde okerrera erori gabe.

Baina ez nintzen hona etorri **martiriaren banderan** bilduta ibiltzeko. Sakon-sakonean lotsatuta sentitzen ote naiz?

Badakizue nor den Nostromo? Argentinako faxista bat

Makurtzen denean galtzontziloak ikusten zaizkio. –Ba al daukazu euskal zinemarik? –galdetu du Pauk.(Nostromo bideoklubeko nagusiak)

–Aski da kontu honekin –esan du ahopeka. –Zein kontu? –Euskaldunak gogaitzen ari zara.

(Marina lehen pertsonan hasten da hitz egiten)

Agian nostalgiaz ari naiz belarria zorrozten, nolabait amaren eta bion harremana oroitarazten didalako.

–Autonomistak ala independentistak? –disimulurik gabe gizonak.

Katuek ere ahoan kiratsa izaten dute goizetan.

Jasotzen hasi orduko Oihana agertu zen, ileak nahasita, kuleroak eta elastiko bat baizik ez zeramatzala.(ez dio inongo garrantzirik ematen elkarrekin egon izanari...)

Kontatu nion Soto del Realeko kartzelan agertu zitzaidala antsietatea, egun batetik bestera.

(kartzelako oroitzapen batzuk)

Horrela hasten dira gaizki-ulertze asko, behar ez den unean norbaiti gauza serio bat esaten diozulako begietara so eginaz.

Neska gogaitzen ari nintzela sentitu nuen. Michel Platinik penaltia huts egin zuenean bezala.

Ez gara larrua jotzeko putak bisitatu izan dituen belaunaldikoak.

Eta zer nahi dugu, finean, gerraz betetako mundu honetan? Gerra txiki zentzugabeak ez sortzea.

Hemen nago, Fundamentos del cine asignaturaren barruko kontuak entzunaz.

Eskolan hartu ote ninduten? Nahiago dut outsider-aren papera jokatu.

Irakasle baten klasea kontaktzen du. Nik jai daukat edertasunaren karta jokatu nahi badut.



Godard lehena izan zen jumping cut teknika erabiltzen filmaren muntaia egiteko.

–Independentziaren alde nago ni, zu bezala, baina metodoekin ez gatoz bat.(polizi onak)

Bide guztiek daramate Intxaurrondora.

Aitortzarik egin gabe epailearen aurrera eramatea frakaso da.

OIHANAREKIN eta Eñautekin hasi naiz irteten. Eñautekin izaten dituen eztabaidetan zentratzen da. Zarataren psikopatak dira, helburua gu sufriaraztea da.(kafeina taldea)

Klimaxaren ondoren umil daude bi artistak.(ikuskizun oso arraroa)

–Iruzurgile pare bat iruditu zaizkit.

Egiten diren deiak baino garrantzitsuagoak dira egiten ez direnak.

Hala ere, zutik hartu ninduten bi forentseek, bisitaren iraupena iragarritz bezala.

Diskoa buelta eta buelta jartzen zutela, erotzen ari nintzela.

Izuak barrua husten zidala sentitu nuen.

Marinaren sugeak nola jaten duen saguaren kontakizuna (Horrela arreta desbideratzen du ustezko gai nagusitik, kartzelatik)

Ezer berezirik esan beharrik gabe lotzen dira ezer berezirik entzuteko premiarik ez daukatenak. (Marina eta Pau)

Urteak zeramatzan bere aitak alkoholari emanda. Maiz ikusi genuen Anak eta biok kalean balantzaka.(Eider Rodriguez?? ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK)

Euskal Herrian hori gertatu zen gure aitekin, iraultza egitetik mozkorrak bizitzera pasa ziren: utopiatik errealitatera.

Marinak eta Anak antz handia daukate alde horretatik, zuzenak dira, baina Anarekin sexu harremanak ditut eta horrek dena aldatzen du. Elkar usnatu dugu.

Batzuek ihes egiten dugu, beste askok ez.

Ez naiz heroia, ez dut halakorik iradoki nahi: sinpleki, ez neukan kontu guzti harekin zerikusirik.

Ama irudikatzen nuen Madrilera bidean,

–Ez zenuke edan behar, ama –esan dut–, kalte egiten dizu.

amodioa esaten diogun asmo patologiko horren kimerak itsuturik.

Nahi nuke nik hark (Amak) pilatzen duen maitasunaren hamarrena bilduko banu.

Ikus ezazue zein ederra den mundua, eta zuek bazterrak nahasten.

Nire bizitza outsider bat bilakatzeko ahalegin hutsa da.

Anak aita ingresatuta daukala eta ama bakarrik, eta harekin egoteko obligazioa sentitzen zuela. Ospitalean, haluzinazioak ditu gizonak, alkoholaren gabeziak eragindakoak.

Sortzen ari garen eraikin honen porlana dira hitzok, erdiak gezurra izan arren. Sare bat da erortzen zarenerako. Segurtasun eternalaren promesa. Funtsezko aitormen bat literaturaren paperaz?



(Amarekin duen harremanetik Anarekin duenera jauzi)

Alegia, neu naizela arazoa eta ez Ana horrelakoa dela besterik gabe.

“Epailearen aurrean dena ukatu”, ikusi nuen idatzirik kalabozoko horman.

Argazkilari soil bat nintzen, geopolitikaren putzura aldi batez eroria. Hanka aterako nuen segituan.

–¿Firma o no firma? OIHANAREN etxean Kepak egin dit lehen ongietorria.

Gotzon eta bera zeuden gartzelaren deskripzioa. Pisu kideekin berriketan kartzelari buruz.

Gizon txuriak Ku Klux Klana antolatzen ari ziren bitartean, beltzak jazza asmatzen ari zirela esan du.

–Oye, ¿cómo se apellida el vasquito que tienes contratado? Langabezian segituko dudala erabaki dut.

Entusiasmoa zapuzten duen jendea gorrotagarria da.

Carlos, Oihanaren pisukidearen behaketa; Pinocheten mamua dantzan

Harrituta nengoen Guardia Zibilaren ibilgailuan Mozart entzuten zelako...

Epailearen irakurketari esker jakin nuen bederatzi lagun ginela atxilotuak.

Dokumentu zuri bat zabaldu eta “Faith” idatzi, fedea.

Zergatik izenburua ingelesez? Fe, gaztelaniaz, formula kimiko bat dela ematen duelako: hierro, adibidez. Faith izena zuen Lars Von Trierren Braking the waves filmaren seigarren atalak ere. Orduan: Faith, edo hobe hizki larritan:–“FAITH” baino izenburu erakargarriagoa egiten zait adibidez “La monja camella” –esan du.

Zine eskolan gidoiez eztabaidan. Tomas irakaslea deskribatzen, fikzionatzen

Maitasuna ez da xakea, ez dago mugimendu egokirik. Gauzak berez mugitzen dira, zuk jakin gabe.

Eñauten maitasun aholkuetatik-gutuna idatzi bai ez- bere esperientziara-presoen aldeko mobida herrikoiak-

Preso politikoa nintzen, eta sentitzen nuen herria nirekin zegoela. Abokatuarekin-

“Grupos Y” delakoa Juan Mari Atutxa izeneko batek asmatu zuen urte batzuk lehenago. EAJkoa zen. Abertzalea. Gauzak esaten zekien Atutxa zakur hark, eta to: hortxe nago ni, bere literaturaren preso.

Zinez ari ziren jende errugabea eramaten, erruduna zela salduz.

Abismoa. Denbora bat denboraren barruan. Jacques Mayol urpekaria. Mise en abyme sublimea izan zen. Abismora hondoratu inoiz ez itzultzeko.

SOTOKO kartzelan, bularreko minak

heriotza-gorputza-elkarriketa



Chapitre six: **Faith**. Fedea da **izuaren** atea zeharkatzen denean geratzen dena. Eta fedea galtzen denean, **delirioa** geratzen da bakarrik.

(ZINEMAZ) Taldeka jarri gara eta bi proiektu garatuko ditu talde bakoitzak.

Amari hots egin diot, ez daki ezer ere. **Nagore** eraman dutela esan diot, albistegietan ikusten ari naizela une honetan bertan.

ANA: gauza sakonez hitz egiteko subterfugio bila ibiltzen da beti, horregatik idazten ditu hain gutun irudimentsuak. Anak inoiz esan ezin izan duen **tristezia handi bat** dauka barruan. Ez dakit berak ba ote dakien. Eta etxe horretan niretzat tokirik ba ote den.

ARREBA: Polizia bat arrebaren baginan atzamarra sartzen.—Todo lo que te han contado es una broma al lado de lo que te vamos a hacer. **Sinfonia bat bezalakoa da izuaren estrategia: guztiak partitura bera ari dira irakurtzen eta interpretatzen.**

Anerekin larrutan egin ondoren, arrebaz gogoratzen da kabalak eginez.

Polizia Ana eta bere atzetik, agian arreba presionatzeko.

BERE EPAIKETA:—¿Es usted Xabier Ugarte? —eta gero—: ¿Se reconoce autor de los hechos que se le imputan en el auto? **Hona iristeko bere zapaten inguruko istorio bat kontatzen du zapata horiek garraiatu dituen kamiolari poloniar baten inguruan.**

AITA: Hendaia hondartzan bizi izan ginen GALEk gugandik gertuegi jendea akabatzen zuen garaian.

ARGENTINAZ: Scilingok hegazkinetik montoneroak botatzen zituen, haiek desagerrarazteko.

Ez dakit zerk batzen gaituen Nagoreren atxiloketaz geroztik Ana eta biok.

SORTZAILEEZ: Zerbait sortzeko, ezinbestean, trauma bat pasa behar du artistak, dio Tomasek. Adulteroa izateko pittin bat immoralala izan beharra dago.

Jendarte baketsu bat ez litzateke posible jendeak esajeratzeko eskubiderik ez balu.

Zer da Ozeko mundua, gure ilusio guztien gordailua ez bada? (Elton Jhonen abesti arrakastatsua) "Exposició fotogràfica. Xabier Ugarte. Nus. Bar Granuja, Carrer de la Vidrieria 25, Barcelona".

GALDERAK IDAZLEARI:

1. Argazkilaria ere bazara eta horren harira, komentatu ahal diguzu azaleko argazkiaren nondik norakoak eta zergatik aukeratu zenuen? [Izenburuari erreparatuz FEDEA ETA FIKZIOA](#) lotuta daudela esan duzu inoiz... bi azalpen esplizito ematen dituzu liburuan horren harira...bigarrena izan daiteke torturarekin lotura duena?
2. Aurreko liburuak distrakzio bat izan dira, hau da nire liburu handia. (Artefaktua)
3. *Faith* liburuaren abiapuntua ihesbide bat da, labirinto batera ihesa...(Oarsoaldeko Hitza) eta (Artefaktua)n diozu: Literatura, argazkilaritza, zinema oso inportanteak dira oso kontrapuntu ona direlako errealitatearekiko eta ihesbidea eskeintzen digutelako.
 - a. Mikel Laboaren abesti batek dio "Ihes ederra zilegi balitz, urra ahal baledi katea...Posible da ihes egitea?"
4. Epikotasunik gabekoa da, eta beti agertzen da ama. Umoreak ere presentzia du. (Oarsoaldeko Hitza) Ez dago aldarrikapen borobilik borroka armatuaren inguruan, eleberriaren ardatz nagusia izan daitekeen horren inguruan. Seinalatzen dira gartzelak, poliziak, ertzainak, politiko bat, tortura metodoak... Zer funtzioa betetzen du umoreak kontakizunean?
5. ["Nire literaturan bada etengabeko borroka bat terroristaren figura desmuntatzeko"](#) Aspaldi esigitzen zaio euskal gizartearen zati bati damua erakus dezan, oroimena izan dezan baina norabide bakar batean. Eleberri hau figura hori desmuntatzeko saiakera bat da?
6. Uste dut irakurleekin harreman ona eduki dudala, baina **literatur sistemak bazterrean utzi izan nau beti**...Uste dut horrek guztiak zerikusia daukala politikarekin. Uste dut Euskal Herrian idazleak saiatzen direla disimulatzen bere posizio politikoa.(ARGIA). ["Errepresioak operatzen du beldurra dagoelako"](#) : Oarsoaldeko Hitza Adierazpen horiekin esan nahi duzu beste idazleak baino politikoagoa eta ausartagoa ikusten duzula zeure burua, euskal idazleak oro har epelak direla, nolabaiteko errepresio, zentsura, baztertze baten beldur direlako?
7. Toki batean eta familia batean jaiotzeak zenbateraino markatzen zaituen eta ni konturatzen naiz ez dudala neure burua eraiki. (Artefaktua) **Zuk behin esan bezala:** Bizitzak denontzako menu bat dauka prestatua nahiz eta zuk beste plater batzuk ikusi inguruan. **Horrela da, ezin dugu menutik ihes egin?**
8. Xabier Ugarte da Lander Garro autentikoena, eta da ni maskararik gabe (Artefaktua)
9. Nik ez dut kontenplatzen terapeutikoa ez den idazteko modu bat. (Artefaktua)
10. **Ana Arriaga pertsonaiaren garrantzia zein da? Kontrapuntu bat da?**
11. **KRITIKA:**
12. [Patuarekin lehian Asier Urkiza / Berria, 2022-05-01:](#) Autoreak geruza auto-ironiko batez estaltzen du narrazioa. **Protagonistaren beraren eta gainerako pertsonaien karakterizazioa da nobelaren indarguneetako bat.** "Kritika laudorio baten azpian ezkutatzea gustatzen zait" dio Ugartek. **Ironia ez al da inkomunikazio forma bat gure bizitzan ?**
 - a.
 - b.
 - c.



- d.
- e.
- f.

13. AZPIMARRAK:

14. Gogoetaz, edota baieztapenez beteta dago eleberria ,1 ,2 ,3 ,4 ,5 ,Nire bizitza outsider bat bilakatzeko ahalegin hutsa da ,dio Garatek Sortzen ari garen eraikin honen porlana dira hitzok, erdiak gezurra izan arren. Sare bat da erortzen zarenerako. Segurtasun eternalaren promesa.
- 15.
16. Liburuan zera esaten duzu: Ez dago ongi ezjakintasunaren alardea egitea, baina erudituaeren papertxoak jokatzea ez al da okerragoa? Euskal literaturaz ari zara, literaturaz orokorrean? Erudizioa erabiltzen du: 1 , 2 .